# NOR NAIZ NI?
# ANIMALIEN KUMEAK - AFRIKA
# NOR NAIZ NI?
# ANIMALIEN KUMEAK - EUROPA

Testua: TÁNDEM SECEDA

Irudiak: ESTER GARCÍA

Itzulpena: JONE IRAZU GARIKANO

Kartoi gogorrean egina. 22 x 22 cm. 40 or. 14 €

Nor naiz ni? Animalien kumeak - Afrika (euskara)
ISBN 978-84-9172-221-2. Zientzia. Kalandraka - Pamiela.

¿Quién soy? Crías de animales - África (gaztelania)
ISBN 978-84-16721-87-0. Ciencias. Faktoría K de Libros.

Quen son? Crías de animais - África (galegoa)
ISBN 978-84-16721-86-3. Ciencias. Faktoría K de Libros.

Qui soc? Cries d'animals - Àfrica (katalana)
ISBN 978-84-16721-86-3. Ciències. Faktoría K de Llibres.

Nor naiz ni? Animalien kumeak - Europa (euskara)
ISBN 978-84-9172-222-9. Zientzia. Kalandraka - Pamiela.

¿Quién soy? Crías de animales - Europa (gaztelania)
ISBN 78-84-16721-85-6. Ciencias. Faktoría K de Libros.

Quen son? Crías de animais - Europa (galegoa)
ISBN 978-84-16721-84-9. Ciencias. Faktoría K de Libros.

Qui soc? Cries d'animals - Europa (katalana)
ISBN 978-84-18558-15-3. Ciencias. Faktoría K de Llibres.

«Nor naiz ni? Animalien kumeak» sailak planetako espezie harrigarrienak erakusten ditu kontinentez kontinente, haurrengan faunaren ezagutza eta natura zaintzeko ardura sustatzeko asmoz txikitatik. Liburuxka bakoitzak zazpi kume aurkezten ditu, eta, asmakizunetan bezalako pista soil batzuekin, animalia identifikatu beharko du haurrak. Hurrengo orrian aurkituko du erantzuna, eta baita animaliaren itxura, habitata, ohitura eta bitxikeriei buruzko informazio zabalagoa ere.

Testu errazak dira, lehen pertsonan idatziak. Horrela, animalia bakoitzak elkarrizketa zuzen eta aktiboa du irakurlearekin. Ilustrazioak, berriz -grafitoz eginak, leunki koloreztatuak-, errealistak eta detaile handikoak dira. Kumeen erretratu adierazkor eta eztiak haien familien  eta kidekoen bizitokiaren irudiekin batera datoz. Hala, alderdi narratiboak eta bisualak elkar osatzen dutela, erreferentziazko materiala eratzen dute, ez soilik eskola eta liburutegietarako, baita etxean partekatzeko ere.

Lehoia, jirafa, gorila, elefantea, hipopotamoa, ostruka eta zebra dira Afrikan girotutako alearen protagonistak. Otsokumeak, zisneak, antxumeak, hartz-kumeak, marmotak, arrano beltzak eta igarabak osatzen dute Europako sorta. Batzuk desagertzeko arriskuan daude: ehiza, espezieen legez kanpoko trafikoa eta kutsadura haurrek ezagutu beharreko mehatxuak dira, haurtzarotik ingurumena eta animaliak errespetatzearen garrantziaz jabetzeko.







- **Gaia:** munduko fauna.
- **Adin egokia:** 3 urtetik aurrera.
- **Nabarmentzekoa:** animaliak, natura, ingurumen-hezkuntza, informazio-liburua, asmakizunak, hiztegia.
- **Liburuaren aurrerapena:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/nor-naiz-ni-afrika-eusk https://issuu.com/kalandraka.com/docs/nor-naiz-ni-europa-eusk

### Tándem Seceda

Chema Heras eta Pilar Martínez irakasleek osatzen dute taldea, Isabel Pelayo eta Xulio Gutiérrez biologo, irakasle eta ingurumen-hezkuntzako adituekin batera. Haur literaturako eta ingurumen-hezkuntzako hainbat argitalpen eta libururen egileak dira.

### Ester García

(Cáceres, 1984)

Arte Ederretan lizentziatua (Salamancako Unibertsitatea), naturak protagonismo handia duen haur eta gazteentzako liburuak ilustratzen ditu. Haren obrak Nazioarteko Junceda Saria eta Ongien Editatutako Liburuaren Sari Nazionala jaso ditu, eta The White Ravens zerrendan ere agertu da.

http://3ster.blogspot.com







www.Kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.com

www. Pamiela etxea .com
soltxate@pamiela.com